



II. ATALA ERRAMUN BAXOKEN OMENEZKO AITORTZAK

>>>

3

TOBERA MUSTRAK BAIGORRIN

Jean Haritschelar
Euskaltzainburu ohia

Herrialde bakoitzak bere ohidura bereziak baditu. Haien artean Baxe Nabarreko “Toberak” edo ere “Tobera mustrak”. Eskandala sortzen zelarik herrian, adibidez, gizon zahar bat ezkontzen zela neska gazte batekin, edo alargun baten bigarren ezkontza, horiek baitziren egiazko eskandalak lehenagoko denboretan, gazteria biltzen zen eta gauaz gizon zaharrena edo alargunaren etxearen aitzinean entzun zitekeen sekulako harra-mantza, galarrotsak deritzana.

Hola jostatzen zen gazteria, joz zartain zaharrak edo bertz erdoil-duak, edozein puskarekin azantza eginez, eta bereziki laidostatuz eskandala egilea. Mehatxua argia zen: ez balinbazuen eskandala sortzaileak barrika bat arno pagatzen, muntatzen zizkioten “Tobera mustrak”, erran nahi baita herriko eta herri ondoetako jendeen aitzinean hartaz eta haren lagunaz trufatuko zirela. Pagatzen zuelarik gelditzen ziren galarrotsak, ez zuelarik onartzen, orduan bai, gazteriaren larderia.

Toberek eskaintzen dute auzi bat herriko plazan aurkeztua, trufatzeko auzia, dudarik gabe, bainan auzi baten itxura daukana: auzitegiko presidentea, prokuradorea edo fiskala Hegoaldean erraiten den bezala, abokatak, uxerra, grefiera, lekukoak, jandarmak eta kondenatua izanen den eskandala egile bikotea. Bi bertsularik aurkezten dute auzia eta noiztenka beren iri-

tzia emaiten, bat jujeen eta gizartearen alde, bertzea auzitan sartu direnen alde. Ospe handitan etortzen dira denak plazara, zaldi karrosetan lehen bezala, zaldi karrosak jende noble eta burjesen ibiltzeko manera zela.

Mustra gisa eta herriko karrika edo karrikak iraganez haien laguntzeko Baxenabarreko kabalkada, zaldunak aitzinean eta haien gibeletik zanpurrak beren buruko miraildunekin eta aizkora espaldan. Gero heldu dira basandereak, kaxkarotak eta bolantak jauntzi xuritan, bizkarra kolorezko xingolez horniturik. Bi lerrotan direlarik heldu dira dantzan, kaxkarot martxa edo edozein alegerazko aire batek lagundurik. Kabalkada osoak plazako itzulia egiten du karrosek uzten dituztelarik auzitegiko jendeak tauladaren aitzinean. Bestaren alegeratzeko eta ikusleei irri eginarazteko plazan sartzen dira zirtzilak. Zuberoako maskaradetan bezala, Baxenabarreko Tobera mustretan agertzen dira eta izen berarekin: zirtzilak. Herrietako ofizioak eskarniatzen dituzte, bai jestuz eta bai hitzez; zirtzil batzu bezala jokatzeko dira trapu zikinekin jauntzirik, izan diten arotz, sastre, ile mozle edo apaintzale, ehule, mediku, zikitero eta bertze...

Ez dakit nola apailatzen zen auzia lehengo denboretan ez baitut uste argitaratuak izan diren bakoitzak erraiten zuena. Pentsa daiteke bai prokuradoreak, bai abokatak zerbait asmatzen zutela, lehenak dena mehatxu, trufa, gaitzesten zituela auzitan zirenak, bertzeak aldiz entseatzen zela gauzen leguntzen. Hots, bakoitzak emaiten zuen orduan bertan asmatzen zuena edo aitzinetik moldatu zuena. Gaitzeko arrakasta bazuten bertsulariek denak jorratuz, hala nola hain famatua zen Oxalde batek bere garaian.

Lekukotasunak ez dira falta. Oxobik bildu zituen eta eman Euskaltzaleen Biltzarrak agertu zuen liburuxkan. Makean, hiruetan hogeita hamalau urteko gizon bat ezkondu zelakotz hogeita lau urteko neska batekin, Xetre Hazpandarra eta Oxalde ari ziren:

Xetre hasi zen:

*Egungo sujetari zer hatxeman dakozute hobena?
Bere nahitan dea zaharturik ezkontzen dena?
Ontsa pentsa afera hoi nungo jujeak dezake kondena?
Ez ote du oilar zaharrak egiten saldarik hoberena?*

Oxaldek errefera:

*Bo, bo, bertzela dugu egungo sujeta
Gizona ezkontziaz oroitu adina joan eta;
Orai zuena tenorea ibiltzeko emaztegai keta?
Debru gizon potreta!
Bardin pixa hemendik horrat ezin bota!*

Bertze egun batez Kanboko toberetan kantatu zuen prefazioa edo zubereraz erraiten den bezala, aitzin pheredikia:

*Zuberoako maskaradetan
bezala, Baxenabarreko
Tobera mustretan
agertzen dira eta izen
berarekin: zirtzilak.
Herrietako ofizioak
eskarniatzen dituzte, bai
jestuz eta bai hitzez;
zirtzil batzu bezala
jokatzeko dira trapu
zikinekin jauntzirik, izan
diten arotz, sastre, ile
mozle edo apaintzale,
ehule, mediku, zikitero eta
bertze...*

**Orduan sortu zen ideia
Baigorriarren artean
Tobera mustren
muntatzea, alegiazko eta
ez egiazko Toberak.
Alegiazko horrek
adiarazten du ez dela
egiazko gaia, gai asmatua
aldiz. Ez da galarrotsen
beharrik eta ez da
mintzen nehor ere. Tobera
mustren aro berri bat
sortu zen orduan eta,
lekuko gisa, mintzo naiz
parte hartu bainuen
1946eko emanaldian.**

*Perveriz, creveriz, zerveriz,
Eskuaraz ala latinez, bardin trebe niz.
Orai bainiz emaztegai bat harrapatzekotan,
Ikusten nuzue debruen lanetan;
Alabainan,
Emazterik gabe ezin pasa lauetan hogoi urtetan.
Lehenik miatuko niz Kanbo huntan,
Hemen ez badut hatxemaiten, Luhusoko errekan,
Han ez badut egiten Bidarraiko mendietan,
Han ez badut egiten entseatuko niz Bankan!
Atx! kukuso batek ausiki nu hankan!
Eta ene ezkontza debruek ereman!*

Lekukotasun horiek erakusten dute nola jokutzen ziren bertsulariak, trufa merke, bazakitelarik jostarazten ikusliarrak.

Irisarriko toberetan, 1883an, jadanik frango zahartua zen Oxalde eta Xarles Soulé Irisartarrak hauxe zion: “Gure aita zenaren ganik gintuen kantutu horiek eta hak erraiten zaukunaz, Oxalde eta biak omen ziren koblari Tobera hetan. (Gure aita ere gaztitan ari omen zen koblaka ez izanik ere haundienetarik.) Hogoi urte zituen orduan. Entzun dakogu nola Oxaldek, orduko, boza hasia zuen ttipitzen eta ditxoka ari zela, gure aita kantuz eta Oxalde ditxoka...”

Asma daiteke usuago egiten zirela Tobera mustrak Baxenabarreko herrietan, XIX. mendean adibidez. Aise gutiago ezagutuak dira XX.ean. Entzun dut Baigorriko auzo batean, Urdozen hain zuzen, muntatu zirela Toberak 1923an. Ez dakit zertako bainan erran didate Baigorriko erretora Etxart zena agertu zela kontra. Orduko gazteriak ez zion kasurik egin erretorari. Gaizki hartu zuen erretorak eta erran zuen garbiki toberetan zikindu ziren dantzarien jauntziak ez zirela gehiago elizan sartuko. Beraz ez zen gehiago Besta Berririk egin Baigorriin lehen bezala, orain Iholdin edo Heletan ospatzen diren bezala eta ene gaztaroan ez dut holakorik ikusi.

II. gerla aitzinean ikusi ditut Toberak Irisarriin, 1937an. Uste dut azken egiazko Toberak izan direla horiek. Gerla ondoan, 1945an, apailatu nahi zituzten Irulegin, bainan debekatuak izan ziren, gaia lazgarria zelakotz.

Orduan sortu zen ideia Baigorriarren artean Tobera mustren muntatzea, alegiazko eta ez egiazko Toberak. Alegiazko horrek adiarazten du ez dela egiazko gaia, gai asmatua aldiz. Ez da galarrotsen beharrik eta ez da mintzen nehor ere. Tobera mustren aro berri bat sortu zen orduan eta, lekuko gisa, mintzo naiz parte hartu bainuen 1946eko emanaldian. Ez naiz batere oroit zer gai hautatu zen eta parte hartu zuten gehienak bertze mundura joanak dira, bainan oroit naiz plazan bildu zela sekulako jendea, hiru milako bat, bertsulariak alegeratu zutela jendea, dantzariak eman zutela berea, zirtzilek halaber ikusleak loriaturik utziz eta taulen gainean arizan zirela gataskan, bainan ez naiz oroit zertaz. Philippe Vey-

rin-ek galdeginik idatzi nuen zerbait Tobera horiei buruz eta eman nion manuskritoa, doblerik ez nuelarik atxiki, 1948ko Euskal Kongresurako. Desagertu da ene lehenbiziko txostena euskaldungoari buruz. Ez dut uste galtze haundia den. Gero, Baigorriin bezala Luhuson eman ziren alegiazko Toberak berrogeieko hamarkadaren azken urteetan.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan berriz ere Baigorriko gazteriak nahi ukan ditu Tobera mustrak muntatu. Orduan, Baigorriko auzapez nintzan eta haiekin harremanetan sartu. Alabainan, banuen Toberen esperientzia, 1946koa. Proposatu nien galdegitea ene euskaltzainkide zen Piarres Larzabali antzerki iduriko zerbaiten idaztea. Onartu zuen eta 1973ko apirilean eskuetan nuen Larzabal apez eta antzerkilari famatuak eginikako lana.

Kakola eta Papillot bikoteak sortu du egiazko eskandala Baigorriin. Beraz, zuzen den bezala, auzitan dira eta hortarako bilduak dira herriko plazan auzitegiko presidentia bere grefierarekin, prokuradorea, beharrezkoa duten abokata, bi lekuko, bat Xiriket anderea, Donibane Lohizunetik etorria, bertzea Zikitero eta behar den antolamendu onaren zaintzeko herriko mutila eta bi jandarma, uxerra ere halabeharrez. Auzi garaian beren iritzia emanen dute bertsulariek.

Kakola, Papillot, Xiriket, Zikitero, izen horiek salatzen dute zertan murgildua den auzia, dena trufaz, dena nausaz, dena irri larriz hornitua izanen dela. Badaki Larzabal idazleak nola behar duen kudeatu bere lana irri mota guzien jalgiarazteko, irri goxotik irri larrira, karkailak ere anar-tean. Hain zuzen, Larzabal baliatzen da aspaldian ezagutua den irri iturri batez: hizkuntz haniztasuna. Alabainan, horretarako Molière-k latina ezartzen zuen jende erdi ikasien ezpainetan haietaz hobeki trufatzeko; Zuberoko asto lasterretan edo pastoral irri egingarrietan prokuradoreek, abokatek latina dariote, hala nola frantsesa juje, grefier eta uxerrek, biar-nesa eta gaztelera ere jende arruntek. Oroit gaiten ere toberetako bertsu-laria zen Oxaldek kantatzen zuenaz Kanbon:

Eskuaraz ala latinez bardin trebe niz.

Lekuko daukagu ere Etxahunek asmatu zuen lehen bertsua *Miñau eta Eihartxe* deritzan olerkian (pastoral irringarri ttipi idurikoa), bost hizkuntza baliatzen zituela:

Sed libera nos a malo sit nomen Domini;

Vamos a cantar un canto para divertir;

Jan dügünaz gerozti xahalki huneti

Eta edan ardua Juranzonekoti,

Chantons mes chers amis,

Je suis content pardi,

Trinquam d'aquest bun bi

Eta dezagün kanta khantore berri.

*Erramun Bachoc
aspaldiko adiskide eta
euskal kultura lankideari
eskaintzen diot
Larzabalen Tobera,
sekulan ez argitaratua,
bere aitzin solasarekin.*

Bertsu bakar batean bilduak dira euskararen inguruan auzoetako mintzairak, frantsesa, gaztelera, biarnesa, bertsua hasten delarik irriaren sortarazteko elizan entzuna eta kantatua den latinarekin.

Latina eta frantsesa erabiliko dute bereziki auzian agertzen den presidentak, berdin prokuradoreak eta halaber abokatak, lehenak aipatzen duela “Liberté, Egalité, Fraternité”, erranez mintzo dela Errepublikako presidentaren izenean eta, 1973an baigira, ez du ahantziko Larzabalek mugatik hurbil dagoela Baigorri eta Franco ez dela oraindik bertze mundura joana. Garai batean bizi gira alde batetik eta alegiazko mundu batean bertzetik. Oroit naizen bezala egun ederra izan zen Baigorriin eman zelarik Tobera mustra hori eta Baigorriarrek ez dezaten ahantz hona Larzabalen obrarekin eman zuten jokolariak:

Presidenta: Jean-Louis Pecotche
Grefiera: Gratien Juantorena
Uxerra: Gratien Alfaro
Xiriket: Jean-François Etcheverry
Zikitero: Erramun Martikorena (Oxobi)
Prokuradorea: Joseph Berho
Abokata: Albert Larre
Herriko mutila: Peio Curutcharry
Kakola: Jean-Léon Iribarren
Papillot: Henriette Inda
Jandarmak: André Inda
Adrien Herlax
Bertsulariak: Xalbador
Mattin

Erramun Bachoc aspaldiko adiskide eta euskal kultura lankideari eskaintzen diot Larzabalen Tobera, sekulan ez argitaratua, bere aitzin solasarekin.■